

1- BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure lehiatzeko abantaila nagusia, Europan zehar ginkanak egiten dituen enpresa bakarra izatea da. Honetaz gain, bezeroen eta langileen arteko harreman hurbila sortu eta mantentzea, familia mailakoa.

Gero eta teknologikoak eta digitalagoa den mundu honetan, zuzeneko esperientziarik onenak eta Offline eskainiko dugu.

Gure enpresaren konpromiso soziala aniztasun funtzionala eta inklusioa helburu moduan dituzten beste ongintza elkarte eta kolektiboekin izango da.

Balio kualitatiboa eta kuantitatiboa ondorengoak izango dira:

-Kuantitatiboa: Ginkanaren iraupena nagusiki aste batekoa izango da. Prezioa lehiakorra izango dugu, hau da, bidaiaren kostuen eta denboraren arabera zehaztuko dugu.

-Kualitatiboa: Berritasuna eta bidaiak pertsonalizatu ahal izateak ezberdinduko gaitu, hau da, zein herrialdeetatik bidaiatu, eta bidai horren iraupena bezeroak aukeratzea. Bezeroari bidai eta ginkanari dagozkion antolamentu lan guztiak prestatzea.